# Xedapen Orokorrak

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### 1919

AGINDUA, 2006ko martxoaren 9koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, igogailuak zerbitzuan jartzeko prozedura telematikoa arautzen duena.

Administrazioak objektibotasunez zerbitzatu behar ditu interes orokorrak, albait eraginkorren zerbitzatu ere. Horretarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 45. artikuluan aurreikusten duenez, Herri Administrazioek teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzea eta aplikatzea bultzatuko dute, beren jarduera garatu eta eskumenak baliatzeko, Konstituzioak eta Legeak bitarteko horien erabilerari jartzen dieten mugekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, bestela izan ezin zitekeenez, Administrazio elektronikoa deiturikoa bultzatzea ere badu bere helburuen artean, beren prozeduretara bitarteko telematikoak gaineratuz, eta batez ere herritarrekiko harremanen eremura.

Izan ere, «Euskadi Informazioaren Gizartean» Planak, «Administrazioa on line» deituriko bere jardun-eremuan, bere helburuen artean, besteak beste, herritarrari hurbildu eta irekitzea du, Informazioaren eta Komunikazioen teknologia berriak erabilita. Gauzak horrela, teknologia horiek eta sinadura elektronikoko eta enkriptazioko sistemek eutsitako prozeduren bidez zerbitzuak ematea funtsezkoa da Administrazioa herritarrei hurbiltzeko eta eraginkortasuna areagotzeko zerbitzu publikoak ematerakoan.

Hori oraindik ere nabarmenagoa da administrazio arin eta eraginkorra eskatzen duten administrazio-jardueraren sektoreetan, industria-instalazioak abiarazteko eta aldatzeko beharrezkoak diren administrazio-prozedurekin gertatzen den bezala.

Premia horri erantzunez, 2003ko martxoaren 3ko Aginduaren bidez arautu zen ez proiekturik ez obra-amaierako ziurtagiririk behar ez duten behe tentsioko instalazio elektrikoak abian jartzeko prozedura telematikoa, eta 2004ko urriaren 11ko Aginduaren bidez, legeztatzeko proiektua behar duten behe tentsioko instalazio elektrikoak zerbitzuan jartzeko prozedura telematikoa.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### 1919

ORDEN de 9 de marzo de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el procedimiento telemático para la puesta en servicio de ascensores.

La administración debe servir con objetividad los intereses generales pero debe hacerlo de la manera más eficaz posible. Por ello, la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y del Procedimiento Administrativo Común prevé en su artículo 45 que las administraciones públicas impulsarán el empleo y aplicación de las técnicas y medios electrónicos, informáticos y telemáticos, para el desarrollo de su actividad y el ejercicio de sus competencias, con las limitaciones que a la utilización de estos medios imponen la Constitución y las Leyes.

La Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, como no podía ser de otro modo, tiene también entre sus objetivos el impulso de la denominada administración electrónica a través de la incorporación de los medios telemáticos a sus procedimientos y especialmente al ámbito de sus relaciones con los ciudadanos.

En efecto, el Plan «Euskadi en la Sociedad de la Información», en su ámbito de actuación «Administración on line», plantea entre otros objetivos, acercarse y abrirse al ciudadano mediante la utilización de las nuevas tecnologías de la información y de las comunicaciones. De esta forma, la provisión de servicios mediante procedimientos telemáticos soportados por dichas tecnologías y por sistemas de firma electrónica y encriptación, resulta clave para acercar la administración al ciudadano e incrementar la eficiencia en la prestación de servicios públicos.

Ello se hace aun más evidente en aquellos sectores de la actividad administrativa que demandan una administración ágil y eficaz como ocurre con los procedimientos administrativos necesarios para la puesta en marcha y modificación de las instalaciones industriales.

Respondiendo a esta necesidad mediante Orden de 3 de marzo de 2003 se reguló el procedimiento telemático para la puesta en servicio de instalaciones eléctricas de baja tensión que no requieren proyecto ni certificado final de obra para su legalización y por Orden de 11 de octubre de 2004, el procedimiento telemático para la puesta en servicio de instalaciones eléctricas de baja tensión que requieran proyecto para su legalización.

Arestian adierazitako prozeduren eraginkortasuna egiaztatuta, beste urrats bat aurrera egin behar da arlo horretan teknologia horiek erabiltzeari dagokionez, izapidetze telematikoaren aukera igogailuak zerbitzuan jartzearen alorrera ere zabalduz, betiere horrelako jardueretara aplika daitekeen araudian ezarritako prozedura zertan aldatu gabe; abuztuaren 1eko 1314/1997 Errege Dekretuak —igogailuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995/16/EE arteztaraua aplikatzeko xedapenak ematen ditu— arautzen ditu jarduera horiek, baita 2000ko abenduaren 26ko Aginduak ere —Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena da eta industria-instalazioak abian jartzeko prozedurak sinplifikatzen ditu—.

Ildo horretan, funtsezkoa da kontuan izatea administrazio-kudeaketaren ikuspuntutik zer abantaila dituen eskaerak eta eska daitekeen gainerako dokumentazioa telematikoki aurkezteak. Horrek administrazio-izapideak arintzea eta ebazteko eta jakinarazteko epeak gutxitzea ahalbidetuko du, administrazio-jarduerak berez dituen karga eta oztopo burokratikoak murriztuta. Bestalde, arautze honen arabera, ahal den neurrian behintzat, dokumentu telematikoek papera ordeztuko dute, ekonomiari eta espazio fisikoari dagokionez horrek ekarriko dituen aurrezteekin.

Aldi berean, kontuan izanda sinadura elektroniko aitortuko prozedura —Sinadura Elektronikoari buruzko 59/2003 Legean biltzen eta arautzen denez— gaineratzea dela eskumena baliatzen duen organoaren eta esku hartzen duen herritarren identifikagarritasun-berme gehien dituen bitartekoa, eta baita pertsona baimenduei erabilera murriztu eta datuak baliatzeko, eta dokumentuen egiazkotasuna eta osotasuna ziurtatzeko ere, baldintza horiek guztiak eska baitaitezke prozedura baten bitarteko telematikoak sartzeko.

Bitarteko teknikoak gaineratzean, kontuan izan dira gai horri buruz Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 45. artikuluan horren inguruan bildutako aurreikuspenak, bitarteko teknikoen bateragarritasuna bermatuz; horretarako Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta jakinarazi dira —2005eko ekainaren 22koan (Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Zerbitzu Orokorretako zuzendariaren 2005eko maiatzaren 5eko Ebazpena) eta 2003ko ekainaren 10ekoan (Informatika eta Telekomunikazio zuzendariaren 2003ko maiatzaren 13ko Ebazpena), hurrenez hurren— Herri Administrazioak erabiliko dituen programa eta aplikazio elektroniko, informatiko eta telematikoak.

Teknika telematikoak erabiltzerakoan bereziki nabarmendu da herritarren eskubideen bermea, datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedaturikoari jarraiki.

Acreditada la efectividad de los procedimientos antes citados, se hace necesario avanzar un paso más en la utilización de dichas tecnologías en este área extendiendo la posibilidad de tramitación telemática a la puesta en servicio de ascensores, sin que ello implique la alteración del procedimiento establecido en la normativa aplicable a este tipo de actuaciones, reguladas por el Real Decreto 1314/1997, de 1 de agosto, por el que se dictan las disposiciones de aplicación de la Directiva del Parlamento Europeo y del Consejo 1995/16/CE sobre ascensores, así como por la Orden de 26 de diciembre de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, de simplificación de procedimientos para la puesta en funcionamiento de instalaciones industriales.

En este sentido, resulta fundamental tener en cuenta las ventajas que desde el punto de vista de la gestión administrativa representa la presentación telemática de las solicitudes y demás documentación exigible. Ello permitirá agilizar los trámites administrativos y reducir los plazos de resolución y notificación, reduciendo las cargas y barreras burocráticas que la actividad administrativa conlleva. Por otra parte, la presente regulación determinará que, en la medida de lo posible, el papel vaya siendo sustituido por los documentos telemáticos, con los ahorros tanto económicos como de espacio físico que ello implicará.

Se ha considerado, a su vez, que la incorporación del procedimiento de firma electrónica reconocida, tal y como se contempla y regula en la Ley 59/2003, de Firma Electrónica, es el medio que introduce mayores garantías de identificabilidad del órgano que ejerce la competencia y del ciudadano interviniente, de restricción de la utilización y acceso a los datos a las personas autorizadas y de autenticidad e integridad de los documentos, requisitos todos ellos exigibles para la introducción de medios telemáticos en un procedimiento.

En la incorporación de medios técnicos se han tenido en cuenta las previsiones contenidas a este respecto en el artículo 45 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y del Procedimiento Administrativo Común, garantizando la compatibilidad de los medios técnicos, a cuyo efecto se da publicidad mediante su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de 22 de junio de 2005 (Resolución de 5 de mayo de 2005 de la Directora de Servicios Generales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo) y en el de 10 de junio de 2003 (Resolución de 13 de mayo de 2003 de la Directora de Informática y Telecomunicaciones) a los programas y aplicaciones electrónicos, informáticos y telemáticos que utilizará la Administración Pública.

En la utilización de las técnicas telemáticas se ha puesto especial interés en la garantía de los derechos de los ciudadanos, de conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal.

Azkenik, Izenpe SAri dagokio prozedura honetan ziurtagiriak emateko zerbitzua; Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek eratu zuten sozietate hori lankidetzarako eremu publikoan ziurtapen-zerbitzuak emateko jarduera komunaren garapenari begira.

Aurrekoaren arabera, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duten urriaren 11ko 284/2005 Dekretuan ezarritako ahalmenei jarraiki, honako hau,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea eta ezarpen-eremua.

1.– Agindu honen xedea bitarteko telematikoen erabilera arautzea da igogailu berriak zerbitzuan jartzea eta egungo ibilgailuak berritzea izapidetzeko; 1314/1997 Errege Dekretuak —abuztuaren 1ekoa da eta horren arabera ematen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren igogailuei buruzko 1995/16/EE arteztarauaren aplikatzeko xedapenak—, 2291/1985 Errege Dekretuak —azaroaren 8koa da eta Igotzeko eta Mantentzeko Aparatuen Araudia onartzen du— eta industria-instalazioak abiarazteko prozedurak sinplifikatzeko Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2000ko abenduaren 26ko Aginduak arautzen dituzte igogailu horiek.

2.– Agindu honetan arautzen den prozedura borondatezkoa da, eta alternatiboa dokumentazioa Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Bulegoetako erregistroetan dokumentazioa aurkeztearekiko.

*2. artikulua.–* Izapidetze telematikoaren faseak.

1.– Honako fase hauek biltzen ditu Agindu honek jorratzen duen prozeduraren izapidetze telematikoak:

a) Instalazio bat zerbitzuan jartzeko elektronikoki sinaturiko eskaera telematikoki aurkeztea, eskaeraren formularioan adierazten den dokumentazio teknikoarekin batera, elektronikoki sinatu behar diren dokumentuak esanbidez adierazita.

Elektronikoki sinatu gabeko eta espedienteari erantsitako dokumentuei dagokienez, eskabidea sinatzen duen enpresak gorde beharko du dokumentu horien jatorrizkoa, eta dagokion Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Bulegoaren esku egon beharko du.

b) Administrazio-tasaren likidazioa eta ordainketa telematikoa.

c) Administrazioak emandako eskakizunak, eta interesdunak eskaturiko dokumentazioa ekartzea.

Por último, el servicio de emisión de certificados corresponde, en el presente procedimiento, a Izenpe, S.A., sociedad constituida por el Gobierno Vasco y las tres Diputaciones Forales como expresión de colaboración en el desarrollo de una actividad común de prestación de servicios de certificación en el ámbito público.

Por lo expuesto, en virtud de las facultades establecidas en el Decreto 284/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto y ámbito de aplicación.

1.– El objeto de la presente orden es regular la utilización de medios telemáticos para tramitar la puesta en servicio de nuevos ascensores y las reformas de los existentes, regulados por el Real Decreto 1314/1997, de 1 de agosto, por el que se dictan las disposiciones de aplicación de la Directiva del Parlamento Europeo y del Consejo 1995/16/CE sobre ascensores, el Real Decreto 2291/1985, de 8 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Aparatos de Elevación y Manutención así como por la Orden de 26 de diciembre de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, de simplificación de procedimientos para la puesta en funcionamiento de instalaciones industriales.

2.– El procedimiento que se regula en la presente orden es de carácter voluntario y alternativo a la presentación de la documentación en los registros de las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo.

*Artículo 2.–* Fases de la tramitación telemática.

1.– La tramitación telemática del procedimiento al que se refiere la presente orden comprende las siguientes fases:

a) Presentación telemática de la solicitud firmada electrónicamente de puesta en servicio de una instalación acompañada de la documentación técnica que se indique en el formulario de la solicitud, con expresa mención de los documentos que deban ser firmados electrónicamente.

En relación con los documentos no firmados electrónicamente y anexados al expediente, su original deberá ser conservado por la empresa en cuyo nombre se suscriba la solicitud y estar a disposición de la Oficina Territorial de Industria, Comercio y Turismo correspondiente.

b) Liquidación y pago telemático de la tasa administrativa.

c) Requerimientos emitidos por la administración así como la aportación de la documentación requerida por parte del interesado.

d) Konponketarako emandako epeen luzapena eskatzea, eta konponketa hori ematen edo ukatzen duen ebazpena.

e) Prozeduraren iraungitzeaz ohartaraztea.

f) Administrazioaren organo eskudunak elektronikoki sinaturiko zerbitzuan jartzeko dokumentua sortzea.

g) Zerbitzuan jartzeko dokumentua eta prozedura izapidetzean sortzen diren administrazio-egintza guztiak jakinaraztea.

2.– Aurreko puntuetan adierazitako izapidea «Igogailuak zerbitzuan jartzeko izapidetze telematikoa» izeneko aplikazio informatikoak baliatuta egingo da. Helbidea: www.euskadi.net/industria.

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren organo eskudunaren dagokion Ebazpenak onartuko ditu aplikazio horren ezaugarri teknikoak.

Adierazitako aplikazio informatikoaren bidez transmisio telematikoa egiteko baldintzak Agindu hau garatzeko araudiaren arabera ezarriko dira.

*3. artikulua.*– Prozeduraren alderdi orokorrak.

1.– Aurreko artikuluan bilduriko izapideak bitarteko telematikoetan erabiltzeak eskumena baliatzen duen organoa identifikatzea eta eskumen hori organo horrek baliatzea bermatuko du, baita emandako dokumentuen egiazkotasuna, osotasuna eta kontserbazioa ere, Agindu honetan eta horren garapen-araudian ezarritakoaren arabera.

2.– Izapidetze telematikoan sinadura elektroniko aitortua erabiliko da, betiere ziurtagiri aitortuan oinarrituriko eta sinadura sortzeko sistema seguru batek sorturikoa, arloa arautzen duten indarrean dagoen araudiak ezarritakoari jarraiki. Horrela sorturiko sinadura elektronikoak elektronikoki jasotako datuekiko balio juridiko bera izango du sinadura idatziak paperean jasotakoekiko duenarekin alderatuta.

3.– Aurreko idatz-zatian xedaturikoa aparte utzi gabe, 10.1, 11. eta 12. artikuluetan aurreikusitako datuei dagokienez, jarduten duen organoa sinadura aurreratuaren bidez identifikatu ahal izango da, aplikazioan instalaturiko ziurtagiri elektroniko batekin sorturikoa, Agindu honen garapen-araudian definituriko ezaugarriekin. Haietara gaineratzen den administrazio-dokumentuen egiazkotasuna eta osotasuna bermatuko du sinadura horrek.

4.– Honako hau bermatu beharko da aplikazio informatikoaren erabilerarekin:

a) Baimendutako pertsonei aplikazioa eta bertan bildutako datuak eta informazioak baliatzeko aukera murriztea.

d) Solicitud de prórroga de plazos concedidos para la subsanación así como la resolución de concesión o denegación de la misma.

e) Apercibimiento de caducidad del procedimiento.

f) Generación del documento de puesta en servicio firmado electrónicamente por el órgano competente de la administración.

g) Notificación del documento de puesta en servicio y de cuantos actos administrativos se generen durante la tramitación del procedimiento.

2.– Los trámites referidos en los puntos anteriores se realizarán accediendo a la aplicación informática denominada «Tramitación telemática para la puesta en servicio de ascensores» ubicada en la dirección www.euskadi.net/industria.

Las características técnicas de la citada aplicación serán las aprobadas por la correspondiente resolución del órgano competente del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

Las condiciones de realización de la transmisión telemática a través de la citada aplicación informática se establecerán mediante la normativa de desarrollo de la presente orden.

*Artículo 3.*– Aspectos generales del procedimiento.

1.– La utilización de medios telemáticos en los trámites contemplados en el artículo anterior garantizará la identificación y el ejercicio de la competencia por el órgano que la ejerciese, así como la autenticidad, integridad y conservación de los documentos emitidos, de conformidad con lo establecido en la presente orden y en su normativa de desarrollo.

2.– En la tramitación telemática se utilizará la firma electrónica reconocida basada en un certificado reconocido y producida por un dispositivo seguro de creación de firma en los términos que establezca la normativa vigente reguladora de la materia. La firma electrónica generada de esta forma tendrá respecto de los datos consignados en forma electrónica el mismo valor jurídico que la firma manuscrita en relación con los consignados en papel.

3.– Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, en los supuestos previstos en los artículos 10.1, 11 y 12, la identificación del órgano actuante podrá efectuarse mediante la firma avanzada generada con un certificado electrónico instalado en la aplicación con las características definidas en la normativa de desarrollo a esta orden. Esta firma garantizará la autenticidad e integridad de los documentos administrativos a los que se incorpore.

4.– Deberá garantizarse en relación con el uso de la aplicación informática:

a) La restricción de su utilización y del acceso a los datos e informaciones en ellos contenidos a las personas autorizadas.

b) Datuak eta informazioak aldatzeko edo galtzeko, edo komunikazioak atzemateko aukera saihestea.

c) Prozesu informatikoak baimendu gabeko manipulazioetatik babestea.

5.– Agindu honetan ezarritakoak ez du aldatzen administrazio-jardunei aplika dakiekeen araubide juridikoa, izapide telematikoaren berezko berezitasuna izan ezik.

6.– Teknika horiek erabiltzeak ezin izango du ezein kasutan ere edozein motatako murrizketarik edo diskriminaziorik eragin herritarrek zerbitzu publikoen prestazioa baliatzeari dagokionez, ezta edozein administrazioko jardun edo prozedura baliatzeari dagokionez ere.

*4. artikulua.*– Artxiboak eta dokumentuak zaintzea.

1.– Teknika elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez sortuak izaki eta bide horiek erabili beharreko izapideak eusten dituzten dokumentu, idazki eta egintzak horrelako euskarrietan gordeko dira, dokumentua sortzeko baliatu zen formatu berean, edo beste edozein euskarritan, betiere horiek erreproduzitzeko beharrezko informazioaren nortasuna eta osotasuna ziurtatzen bada. Bereziki, elektronikoki sinaturiko dokumentuei dagokienez, sinadura elektronikoarekin, denbora-zigiluarekin eta sinatzeko erabilitako ziurtagiri elektronikoaren indarraldiaren egiaztapenarekin gordeko dira dokumentu horiek.

2.– Dokumentuak biltegiratzeko bitartekoek edo euskarriek dokumentuen osotasuna, egiazkotasuna, kalitatea, babesa eta kontserbazioa bermatzen duten segurtasun-neurriak beharko dituzte; zehazki, erabiltzaileen identifikazioa eta sarbideen kontrola ziurtatuko dute.

3.– Interesdunek euskarri elektroniko, informatiko edo telematikoetan biltegiraturiko dokumentuak baliatzeko aukera Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. eta 37. artikuluek eta, hala badagokio, Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedaturikoari jarraituko diote.

4.– Bitarteko telematikoen bidez artxibatzea baliatzeko aukera aurreko idatz-zatian definituriko baldintzetan ahalbidetuko da, dagokion ziurtagiri elektronikoarekin aldez aurretik identifikatuta, Euskal Administrazioaren Zerbitzu Atarian horretarako gaituriko helbide elektronikoan sartuz (www.euskadi.net).

5.– Arestian adierazitako euskarri eta bitartekoetan biltegiraturiko dokumentuak dagokion administrazio-espedientearen zati izango dira, espediente horretako gainerako jardunekin batera, edozein euskarri —fisiko zen telematiko— erabili izan bada ere.

b) La prevención de alteraciones o pérdidas de los datos e informaciones e interceptación de las comunicaciones.

c) La protección de los procesos informáticos frente a manipulaciones no autorizadas.

5.– Lo establecido en la presente orden no altera el régimen jurídico aplicable a las actuaciones administrativas, a salvo las especificidades propias de la tramitación telemática.

6.– La utilización de tales técnicas en ningún caso podrá implicar la existencia de restricciones o discriminaciones de cualquier naturaleza en el acceso de los ciudadanos a la prestación de servicios públicos o a cualquier actuación o procedimiento administrativo.

*Artículo 4.*– Archivos y custodia de documentos.

1.– Los documentos, escritos y actos que hayan sido producidos mediante técnicas electrónicas, informáticas y telemáticas y den soporte a los trámites a utilizar por dichas vías se conservarán en soportes de esta naturaleza en el mismo formato a partir del que se originó el documento, o en otro cualquiera que asegure la identidad e integridad de la información necesaria para reproducirlos. En particular, los documentos firmados electrónicamente se conservarán con la firma electrónica, el sellado de tiempo y la constancia de la verificación de la vigencia del certificado electrónico con el que se ha firmado.

2.– Los medios o soportes en que se almacenen documentos deberán contar con medidas de seguridad que garanticen la integridad, autenticidad, calidad, protección y conservación de los documentos; en particular, asegurarán la identificación de las personas usuarias y el control de accesos.

3.– El acceso por los interesados a los documentos almacenados en los soportes electrónicos, informáticos o telemáticos se regirá por lo dispuesto en los artículos 35 y 37 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y, en su caso, por la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

4.– Se posibilitará el acceso al archivo por medios telemáticos en los términos definidos en el apartado anterior, previa identificación con el correspondiente certificado electrónico entrando en la dirección electrónica habilitada al efecto en el Portal de Servicios de la Administración Vasca (www.euskadi.net).

5.– Los documentos almacenados en los soportes y medios antes mencionados formarán parte del expediente administrativo correspondiente junto con el resto de actuaciones que formen parte del mismo, con independencia del soporte, físico o telemático, que se haya utilizado.

*5. artikulua.*– Papererako itzulgarritasuna.

1.– Arrazoi teknikoak direla-eta bide telematikoa ezin bada erabili edo komunikazioak ez badira behar bezala egiten, paper euskarrirako sistemaren itzulgarritasuna aplikatu ahal izango da. Edozein kasutan ere, edukia oso-osorik eta hitzez hitz itzultzen dela bermatu beharko da.

2.– Itzulgarritasun-prozesuaren ondorioz, bitarteko telematikoen bidez edo euskarri telematikoetan biltegiraturiko jatorrizko dokumentuaren kopiak jatorrizko dokumentuaren baliotasun eta eraginkortasun bera izango du; horretarako, kopia eskuetsia eman beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta organismo autonomoen eremuan agirien kopiak eta ziurtagiriak emateari eta sinadurak legeztatzeari buruzko ekainaren 18ko 149/1996 Dekretuan adierazitako eskakizunen arabera.

3.– Horri jarraiki sorturiko kopiak identifikazio-kode bat izango du, eta horrek dagokion espedientearekin elkartzea ahalbidetuko du.

4.– Itzulgarritasuna interesdunek euskarri telematikoan aurkezturiko dokumentu, idazki edo komunikazioekiko gertatzen bada, kopia konpultsatu bat lortuko da, jatorrizkoarekin duen kointzidentzia zehatza jasota, arestian adierazitako ekainaren 18ko 149/1996 Dekretuaren 5. artikuluan xedaturikoaren arabera.

*6. artikulua.*– Euskarri telematikoaren lehentasuna.

Dokumentuak, idazkiak edo komunikazioak formatu elektroniko, informatiko edo telematikoan eta, aldi berean, paper euskarrian jasotzen badira, bertsio elektroniko, informatiko edo telematikoa soilik izango da kontuan.

*7. artikulua.*– Izapidetzeko aukerak.

1.– EB onespen-aitorpena haren izenean sinaturiko Enpresa Euskal Autonomia Erkidegoko Industria, Merkataritza eta Turismoko dagokion Lurralde Bulegoak baimendu beharko du igogailuak instalatu edo berritzearen arloan.

2.– Aurreko idatz-zatian aipatzen diren enpresek Enpresa Ziurtagiria beste Autonomia Erkidego batzuetan lortzen badute, enpresa horietako instalatzaileek telematikoki izapidetu ahal izateko aldez aurretik 175/1994 Dekretuaren —maiatzaren 17koa, da, Industria eta Energia Sailarena, eta Txartel Profesionalak ateratzeko bidea bateratu eta instalazioak, mantentze-lanak edo industria-segurtasunaren alorreko bestelako jarduerak egiten dituzten Enpresa Baimendunentzako eskakizunak zehazten ditu— 19. artikuluan ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte.

*Artículo 5.*– Reversibilidad a papel.

1.– Cuando por razones técnicas no pudiera utilizarse la vía telemática o las comunicaciones no se hicieran correctamente, podrá aplicarse la reversibilidad del sistema al soporte papel. En todo caso se deberá garantizar la integridad y literalidad en su contenido.

2.– Como resultado del proceso de reversibilidad, la copia del documento original almacenado por medios o en soportes telemáticos tendrá la misma validez y eficacia del documento original, para lo cual se deberá expedir una copia autenticada de conformidad con los requisitos señalados en el Decreto 149/1996, de 18 de junio, sobre la expedición de copias de documentos y certificaciones y la legalización de firmas en el ámbito de la Administración General y organismos autónomos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– La copia así producida llevará un código de identificación que permitirá su unión al correspondiente expediente.

4.– En el supuesto de que la reversibilidad se produzca en relación con los documentos, escritos o comunicaciones presentados en soporte telemático por los interesados, se procederá a la obtención de una copia compulsada haciendo constar la coincidencia exacta con el original, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 5 del Decreto 149/1996, de 18 de junio, antes citado.

*Artículo 6.*– Prioridad del soporte telemático.

En el supuesto de que se reciban documentos, escritos o comunicaciones en formato electrónico, informático o telemático y, a la vez, en soporte papel, solo se tendrá en cuenta la versión electrónica, informática o telemática.

*Artículo 7.*– Posibilidades de tramitación.

1.– La empresa, en cuyo nombre se suscriba la declaración de conformidad CE, deberá estar autorizada por la Oficina Territorial de Industria, Comercio y Turismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco correspondiente en el ámbito de la instalación o reforma de los ascensores.

2.– Cuando las empresas a que hace referencia el párrafo anterior hayan obtenido el Certificado de Empresa Autorizada en otras Comunidades Autónomas, para que sus instaladores puedan tramitar telemáticamente, será necesario el previo cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 19 del Decreto 175/1994, de 17 de mayo, del Departamento de Industria y Energía, por el que se unifica el procedimiento para la obtención de los carnés profesionales y se definen las exigencias para las empresas autorizadas que realizan instalaciones, mantenimientos u otras actividades en materia de seguridad industrial.

*8. artikulua.*– Izapidetze telematikorako sarbidea.

1.– Agindu honetako 3.2 artikuluan aurreikusitako sinadura elektroniko baimendua sortzeari begira, izapidetze telematikoa egiteko interesa dutenek ziurtagiri elektroniko baimendua eduki beharko dute, Agindu hau aplikatzeko horri buruz ezarritakoaren arabera.

2.– Enpresa baimenduek alta hartu beharko dute aplikazioa erabiltzeko, eta horretarako Agindu honen eranskina behar bezala beteta aurkeztu beharko dute, beren izenean jarduteko baimenduriko pertsonak izendatuz Agindu honetan xedaturiko ondorioetarako.

*9. artikulua.*– Telematikoki aurkeztu ezin diren dokumentuak.

Telematikoki bidali ezin daitekeen dokumentazioa aplikatzekoa den prozeduraren araudian ezarritakoaren arabera bideratuko da.

*10. artikulua.*– Administrazio-tasaren likidazioa eta ordainketa.

1.– Administrazio-tasaren likidazioa —Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legearen 19. artikuluan ezarritako eskakizunak bilduko ditu— ziurtagiri elektroniko aitortu edo aitortu gabean oinarrituriko sinadura aurreratua erabilita emango da, Agindu honetako garapen-araudian definituriko ezaugarriekin, betiere ematen duen organo edo autoritate arduraduna identifikatuta. Interesdunari erakutsiko zaio, eta deskargatzeko eta beretzat gordetzeko aukera izango du.

2.– Agindu honetan erregulaturiko izapidetze telematikoa aukeratzen duen interesdunak tasa telematikoki ere ordaindu beharko du; horri begira, horretarako laguntzen duten erakundeetako zerbitzariekin konexioa izateko aukera erraztuko du sistemak. Behin interesdunak erakunde horien artean berak nahi duena aukeratzen duenean, zerga-zorraren identifikazio-datuak transmitituko ditu sistemak, interesdunak zorra ordaintzea agintzeko moduan; ordainketaren dagokion frogagiria ere emango da.

*11. artikulua.*– Idazkiak eta komunikazioak aurkeztea.

1.– Eskatzaileak aurkezturiko idazki eta komunikazioak aplikazioaren bidez jasotzeak eragin juridiko berak izango ditu Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren dagokion Lurralde Bulegoak jasotzearekin alderatuta.

2.– Jasotzerakoan aurkezpen-ordainagiria erakutsiko zaio igorleari, eta hark inprimatu eta deskargatzeko, eta beretzat gordetzeko aukera izango du. Ordainagirian —ziurtagiri elektroniko batean oinarrituriko sinadura elektronikoa erabiliko da ordainagiria sortzeko—, igorlearen eta jasotzailearen identifikazioa jasoko da, baita sarrera-erregistroaren zenbakia, izapidearen izena, eta zer egunetan eta ordutan aurkeztu den ere.

*Artículo 8.*– Acceso a la tramitación telemática.

1.– A fin de generar la firma electrónica reconocida prevista en el artículo 3.2 de la presente orden, los interesados en realizar la tramitación telemática deberán disponer del Certificado electrónico reconocido, conforme a lo que se establezca al efecto en aplicación de esta orden.

2.– Las empresas autorizadas deberán además darse de alta en el uso de la aplicación, para lo cual presentarán el anexo a esta orden debidamente cumplimentado, designando las personas autorizadas para actuar en su nombre a los efectos dispuestos en la presente orden.

*Artículo 9.*– Documentación no susceptible de presentación telemática.

La documentación no susceptible de remitirse telemáticamente se cursará con arreglo a lo establecido en la normativa del procedimiento que sea de aplicación.

*Artículo 10.*– Liquidación y pago de la tasa administrativa.

1.– La liquidación de la tasa administrativa, que contendrá los requisitos establecidos en el artículo 19 de la Ley 13/1998, de 29 de mayo de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se emitirá empleando una firma avanzada basada en un certificado electrónico reconocido o no reconocido, con las características definidas en la normativa de desarrollo a esta orden, identificando en todo caso al órgano o autoridad responsable de su emisión. Se mostrará al interesado, quien tendrá la opción de descargarlo y conservarlo en su poder.

2.– El interesado que opte por la tramitación telemática regulada en esta orden deberá, asimismo, proceder al pago telemático de la tasa, para lo cual el sistema facilitará la conexión con los servidores de las entidades de crédito que colaboran a estos efectos. Una vez que el interesado determine, de entre éstas, la entidad de su elección, el sistema transmitirá los datos identificativos de la deuda tributaria de forma que el interesado podrá ordenar su pago del que se emitirá el correspondiente justificante.

*Artículo 11.*– Presentación de escritos y comunicaciones.

1.– La recepción por la aplicación de los escritos y comunicaciones presentados por el solicitante tendrá los mismos efectos jurídicos que la recepción por la Oficina Territorial correspondiente del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

2.– En el momento de la recepción se mostrará el recibo de presentación al remitente, quien tendrá la opción de imprimirlo o de descargarlo y conservarlo en su poder. En el recibo, en cuya generación se empleará la firma electrónica avanzada basada en un certificado electrónico, se hará constar la identificación del remitente y destinatario, número de registro de entrada, denominación del trámite y fecha y hora de su presentación.

*12. artikulua.–* Bitarteko telematikoen bidezko jakinarazpenak.

1.– Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak interesdunekin komunikazio-ildo gisa bitarteko telematikoak erabiltzeak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. eta 59. artikuluek administrazio-egintzak jakinarazteko ezarritako eskakizunak betetzen direla bermatuko du edozein kasutan ere.

Interesdunak jakinarazpena bitarteko telematikoen bidez egiteko bere baimena baliogabetzeko aukera izango du; horretarako, organo eskudunari jakinarazi beharko dio eta jakinerazpenetarako helbide bat adierazi beharko du.

2.– Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.3 artikuluan xedaturikoaren ondorioetarako, dagokion helbide elektronikoen interesdunarentzat jakinarazpena zer egunetan eta ordutan eskuragarri dagoen grabatuta geratuko da datu-basean, eta baita ere, hala badagokio, interesdunak jakinarazpenaren edukira zer egunetan eta ordutan sartu den.

3.– Interesdunak, aldez aurretik ziurtagiri elektroniko aitortua erabilita, jakinarazpenak baliatzeko aukera izango du honako helbide elektroniko honetan: www.euskadi.net.

*13. artikulua.–* Kontsultak.

Aplikazio informatikoari esker, eskatzaileek eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak edozein unetan kontsultatu ahal izango dute administrazio-espediente bakoitzaren izapidetze-egoera, baita eragiketak zer egunetan eta ordutan egin diren ere, aldez aurretik dagokion ziurtagiri elektroniko aitortuarekin identifikatuta.

*14. artikulua –* Ziurtapena hirugarrenei begira.

Enpresa baimenduak 2. artikuluan adierazitako helbide elektronikoan eskatu ahal izango du, sinadura elektroniko aitortua erabilita, zerbitzuan jartzeko dokumentuaren ziurtagiriak ematea, eta horiek emateko paper euskarria edo euskarri elektronikoa aukeratzea.

*15. artikulua.–* Dokumentuen Erregistro Telematikoa.

1.– Erregistro Telematikoa sortuko da izapidetze telematikoa izango duten eskaera, idazki eta komunikazioak hartzeko eta bidaltzeko, betiere Agindu honetan arauturiko baldintzetan, eta, edozein kasutan ere, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarritako eskakizunak beteko direla bermatuta.

2.– Urteko egun guztietako 24 ordutan idazkiak eta komunikazioak aurkeztea ahalbidetuko du Erregistro Telematikoak, eta Erregistro Orokorrak ere funtzionamendu aldi bera izango du.

*Artículo 12.–* Notificaciones por medios telemáticos.

1.– La utilización por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo de medios telemáticos como cauce de la comunicación con los interesados garantizará en todo caso el cumplimiento de los requisitos establecidos por los artículos 58 y 59 de la Ley 30/ 1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y del Procedimiento Administrativo Común para la práctica de la notificación de los actos administrativos.

El interesado podrá revocar su consentimiento para que la notificación se practique por medios telemáticos, en cuyo caso deberá comunicarlo al órgano competente y señalar una dirección donde practicar las notificaciones.

2.– A los efectos de lo dispuesto en el artículo 59.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, quedará grabada en la base de datos la fecha y hora en que la notificación se encuentra accesible para el interesado en la dirección electrónica correspondiente así como, en su caso, la fecha y hora en que se produzca el acceso a su contenido por parte del interesado.

3.– El intensado, previa identificación mediante el empleo del certificado electrónico reconocido, podrá acceder a las notificaciones en la dirección electrónica www.euskadi.net.

*Artículo 13.–* Consultas.

La aplicación informática permitirá a los solicitantes y al Departamento de Industria, Comercio y Turismo consultar en todo momento el estado de tramitación de cada uno de los expedientes administrativos, así como la fecha y hora en que se han realizado las operaciones, previa identificación con el correspondiente certificado electrónico reconocido.

*Artículo 14.–* Certificación a efectos de terceros.

La empresa autorizada podrá solicitar en la dirección electrónica indicada en el artículo 2, mediante la utilización de la firma electrónica reconocida, la expedición de certificaciones del documento de puesta en servicio y elegir el soporte en papel o electrónico de su emisión.

*Artículo 15.–* Registro telemático de documentos.

1.– Se crea un registro telemático para la recepción y salida de solicitudes, escritos y comunicaciones que, en los términos regulados por la presente orden, sean objeto de tramitación telemática, que garantizará en todo caso el cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

2.– El registro telemático permitirá la presentación de escritos y comunicaciones todos los días del año durante las veinticuatro horas, y el registro tendrá el mismo periodo de funcionamiento.

3.– Ebaztea dagokion organoa kokatuta dagoen herrian aplikagarria den Jaiegunen Egutegi Ofizialeko lanegunei jarraiki aurkeztuko dira eskaera, idazkia eta komunikazioak, finkaturiko epeak zenbatzeari begira.

4.– Erregistro Telematikoan eginiko oharrak Erregistro Orokorrean informatikoki bilduko direla bermatzen da, indarrean dagoen araudian xedaturiko baldintzetan.

*16. artikulua.*– Datuak babestea.

Antolamendu juridikoan ezarritako mugak izango ditu Administrazioak —Agindu honen esparruari dagokionez— teknika elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzeko, eta, bereziki, Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedaturikoaren erabateko birtualtasuna bermatuko du.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendariak ahalmena du Agindu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren Ebazpenak emateko.

*Bigarrena.*– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko martxoaren 9a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

3.– La presentación de solicitudes, escritos y comunicaciones en el registro telemático se regirá, a efecto de cómputo de los plazos fijados en días hábiles, por el calendario oficial de fiestas laborales aplicable a la localidad donde radique el órgano al que corresponda resolver.

4.– Se garantizará la integración informática en el Registro General de las anotaciones efectuadas en el registro telemático, en los términos dispuestos en la normativa en vigor.

*Artículo 16.*– Protección de datos.

La utilización de las técnicas electrónicas, informáticas y telemáticas por la administración, en el ámbito de esta orden, tendrá las limitaciones establecidas por el ordenamiento jurídico, y en especial garantizará la plena virtualidad de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Director de Consumo y Seguridad Industrial del Gobierno Vasco para dictar las resoluciones necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente orden.

*Segunda.*– La presente orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de marzo de 2006.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

ERANSKINA

IGOGAILUAK TELEMATIKOKI IZAPIDETZEKO AKREDITAZIOA

.............................................................................................................................................................. jaunak/andreak
(helbidea: ......................................................................................................................................................................,
NANaren zenbakia: ..................................................................................................................... eta helbide elektronikoa:
..........................................................................................................................................................................................)
................................................/EIA - ..................................... zenbakiarekin Industriako Lurralde Bulegoak baimenduriko
.................................................................................................................................. enpresaren izenean eta haren ordezkari
gisa jardunez, eta dokumentu hau formalizatzeko beharrezko lege-gaitasuna izanik, honako honi

BAIMENA EMATEN DIO

.............................................................................................................................................................. jauna/andreari
(helbidea: ......................................................................................................................................................................,
NANaren zenbakia: ..................................................................................................................... eta helbide elektronikoa:
..........................................................................................................................................................................................)
Industria, Merkataritza eta Turismo Sailean igogailuak zerbitzuan jartzeko izapidetze telematikoa egiteko, horretarako Eusko Jaurlaritzak baliatzen dituen sistema informatikoak erabilita, honako Lurralde Historiko hauetan.

☐ Araba ☐ Bizkaia ☐ Gipuzkoa

Akreditazio hau baliozkoa izango da Industria, Merkataritza eta Turismo Sailean baliogabetu dela jakinarazten ez den bitartean.

…………………………, ..........(e)ko ...............................ren ……..(a)

Enpresaren ordezkariaren sinadura Baimendutako lagunaren sinadura

*ANEXO*

*ACREDITACIÓN PARA LA TRAMITACIÓN TELEMÁTICA DE ASCENSORES*

*D./D.ª ..........................................................................................................................................................*

*con domicilio en ..............................................................................................................................................,*

*DNI .......................................................................................................................... y dirección de correo*

*electrónico .........................................................................................................................................................,*

*actuando en nombre y representación de la empresa ........................................................................................*

*autorizada por la Oficina Territorial de Industria con el n.º ................................................./EIA - ....................................... ,*

*y con capacidad legal necesaria para formalizar este documento,*

*AUTORIZA A*

*D./D.ª. ..........................................................................................................................................................*

*con domicilio en ..............................................................................................................................................,*

*DNI ...............................................................................................................................................................,*

*y dirección de correo electrónico ........................................................................................................................*

*para realizar ante el Departamento de Industria, Comercio y Turismo, la tramitación telemática para la puesta en servicio de ascensores, utilizando los sistemas informáticos que el Gobierno Vasco disponga a tal efecto, en el/los Territorio/s Histórico/s de:*

☐ *Álava* ☐ *Bizkaia* ☐ *Gipuzkoa*

*Esta acreditación tendrá validez en tanto no se comunique su revocación ante el Departamento de Industria, Comercio y Turismo.*

*En ......................................, a ...... de ................... de ...........*

*Firma del representante de la empresa* *Firma de la persona autorizada*